



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ERMUARA EROAN DABE ERAKUNDEAREN HISTORIARI ETA LURRALDEAN DAUKAN GARRANTZI POLITIKOARI BURUZKO ERAKUSKETA IBILTARIA

- “Bizkaiko Batzar Nagusiak Ezagutuz” erakusketea Ermuko Kaltzango plazan egongo da maiatzean.
- Inaugurazino ekitaldian Ana Otadui Biteri Batzar Nagusietako Lehendakaria eta Juan Carlos Abascal Candás herriko alkatea izan dira, udal gobernuko taldeko kide askogaz batera.

(Ermuan, 2022ko maiatzaren 5ean). “Bizkaiko Batzar Nagusiak Ezagutuz” erakusketea Ermuan ikusi ahal izango da maiatz osoan zehar, Barakaldoko kaleak itxi ostean, Bizkaiko geografian zehar egingo dauen bigarren zeharkaldiaren barruan. Herriaren erdialdean dagoan Kaltzango plazak hartuko dau erakusketa ibiltaria maiatzaren 31ra arte. Dozena bat panelen bidez, Europako sistema parlamentario zaharrenetakoaren garrantzi historiko, sozial eta kulturala erakutsiko da.

Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak eta Juan Carlos Abascal Candás herriko alkateak inaugurau dabe gaur goizean Bizkaiko parlamentuak sustatzen dauen erakusketea. Bilbon, Getxon, Portugaleten eta Durangon be ikusi ahal izan zan igaz, eta holantxe amaitu zan lurraldeko lau barrutietatik egindako lehenengo itzulia. Joan dan apirilean Barakaldon egon zan, eta Ermuaren ostean, bagilean Galdakao eta garagarrilean Bermeo izango dira hurrengo helmugak, lurraldeko herri garrantzitsuenetan zehar egindako bigarren itzuliari amaierera emoteko.

“Bizkaiko Batzar Nagusiak Ezagutuz” erakusketea formatu handiko 12 panelek osotzen dabe, eta Batzar Nagusiek parlamentu-erakunde moduan daben eskumen-egitura zabala azaltzen da bertan, baita erakundearen kultur ondarea be. Batzar Nagusien lau egoitzetan zeharko ibilbidea (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Gerediaga) egiten dau erakusketeak; zehaztasun gehiago emoten ditu Gernikako Batzar Etxeaz, erkundearen egoitza nagusia dalako eta bertan dagozalako, esaterako, Gernikako Arbolea (demokraziaren, askatasunaren eta bakearen euskal ikur nagusia) , eta Francisco de Mendietaren “*Bizkaitarrek Fernando Katolikoa Erregeari 1476.ean egindako esku-mosua*” izeneko margolana; kuadro hori osoko batzarren aretoaren atalburuan dago eta oso berezia da, Europako artean lehenengoz emakume-talde



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



baten erretratua egiten dauelako.

Erakusketearen inaugurazioan Ana Otadui Biterik azaldu dauenez, Ermuko eta Bizkaia osoko *“biztanleen egunerokoan”* eragina daukien erabagi *“ugari”* hartzen dituan erakundea ezagutarazotea da erakusketaren helburua. Ariketa *“bisual, erakargarri eta gardena”*, *“Bizkaiko Batzar Nagusiek beteten daben funtzino parlamentarioa eta ondare kultural aberatsa”* azaltzeko, horren ganean *“ezjakintasun handia”* dagoalako. Argia jarteko, Bizkaiko biztanle guztiak ordeztu dituen 51 batzarkideek egiten daben kontrol-lana azpimarratu dau Otadui; horreetatik hamar bat Ermua barru hartzen dauen Durango-Arratia barrutitik datoz. Otadui ermuar ospetsu batzuek egindako lana ekarri dau gogora, horreen artean Francisco José Berjón Ayuso edo José Luis Araujo Araujo.

Beste alde batetik, Juan Carlos Abascal Candás alkateak azpimarratu dauenez, *“erakundeak herritarrengana hurbiltzea aukera ona da beti. Oso garrantzitsua da Ermuko herritarrek Bizkaiko Batzar Nagusiak gertutik ezagutu ahal izatea, bertan ermuarrentzat eta bizkaitarrentzat oso erabagi garrantzitsuak hartzen diralako”*.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA TRASLADAN A ERMUA LA MUESTRA ITINERANTE SOBRE SU HISTORIA Y RELEVANCIA POLÍTICA EN EL TERRITORIO

- La exposición “Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas” recala este mes de mayo en la plaza Kaltzango de Ermua.
- Al acto de inauguración han acudido la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui Biteri, y el Alcalde de la localidad, Juan Carlos Abascal Candás, además de buena parte de integrantes del equipo de Gobierno municipal.

(Ermua, a 5 de mayo de 2022). La muestra “**Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas**” se podrá ver durante todo este mes de mayo en Ermua, tras dejar las calles de Barakaldo, dentro de su segunda travesía por la geografía de Bizkaia. La céntrica plaza Kaltzango acogerá hasta el 31 de mayo esta exposición itinerante que refleja, por medio de una docena de paneles, la relevancia histórica, social, cultural y política de uno de los sistemas parlamentarios democráticos más antiguos de Europa.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, y el Alcalde de la localidad, Juan Carlos Abascal Candás, han inaugurado esta mañana esta muestra que promueve el Parlamento de Bizkaia y que ya estuvo expuesta el año pasado en Bilbao, Getxo, Portugalete y Durango, cerrando una primera vuelta por las cuatro circunscripciones del territorio. Durante el pasado mes de abril estuvo en Barakaldo y los próximos destinos, tras Ermua, serán Galdakao, en junio, y Bermeo, en julio, dando por finalizado así su segundo periplo por las localidades más importantes del territorio.

“**Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas**” es una mirada al pasado, presente y futuro a través de 12 paneles de gran formato, donde se explica la amplia estructura competencial como institución parlamentaria y también el patrimonio cultural que atesoran las Juntas. En la exposición se ofrece un sencillo recorrido por el contenido de sus cuatro sedes (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga), parándose con más detalle en su sede principal, la Casa de Juntas de Gernika, por ser abrigo del símbolo vasco de la democracia, la libertad y la paz más universal, como es el Árbol de Gernika, y del cuadro “El Besamanos” de Francisco de Mendieta que preside el salón de plenos y que ha sido considerado el primer retrato colectivo de mujeres del arte europeo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



En la inauguración de la muestra, Ana Otadui Biteri ha explicado que esta exposición pretende dar a conocer una institución que toma “*numerosas*” decisiones que “*afectan al día a día*” de los habitantes de Ermua y de todo Bizkaia. Un ejercicio “*visual, atractivo y transparente*”, que pretende explicar “*tanto la función parlamentaria como el rico patrimonio cultural que atesoran las Juntas*”, del que pesa sobre él “*un gran desconocimiento*”. Para poner luz, Otadui ha destacado la labor de control que realizan los 51 junteros y junteras que representan a toda la población de Bizkaia, de los que una decena provienen de la circunscripción de Durango-Arratia en la que se encuadra Ermua. Otadui ha recordado la labor de ilustres ermueños del pasado como Francisco José Berjón Ayuso o José Luis Araujo Araujo.

Por su parte, el alcalde de la localidad, Juan Carlos Abascal Candás, ha destacado que “*siempre es una oportunidad acercar las instituciones a la ciudadanía. Es muy importante que la ciudadanía de Ermua pueda conocer de cerca las Juntas Generales de Bizkaia, ya que en ellas se toman decisiones muy importantes*” para ermueños y vizcaínos y vizcaínas.